

Bernabé Unda Industria sailburuak Deustuko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Zientzietako graduondoko tituluak banatu ditu

Joan den martxoaren 4an, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko graduondoko tituluak banatu ziren. Ekitaldiaren barruan, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburu Bernabé Undak hitzaldi bat eskaini zuen: «Las empresas: la pieza clave de nuestro sistema de competitividad». Ekitaldi horretan diplomak banatu zitzaizkien programa hauek egin dituzten ikasleei: European & International Business Management Masterra, Giza Baliabideetako Unibertsitate Masterra, Finantza Masterra eta Kontu Ikuskaritzako Masterra.